

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2023ko AZAROAREN 7ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratu direnak:

José Antonio Rodríguez jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea eta Kontseiluko presidentea.

Maitane Ipiñazar Miranda andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunen eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Ibon Narbaiza jauna, nekazaritzaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Eugenio Jiménez jauna, hezkuntzaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ana Priede andrea, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Joana del Hoyo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Mónica González andrea, Nerea Uriarte andrea, Iñigo Eguren jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Jesús Gonzalez jauna, Jesús Ochoa jauna, Martín Iriberry jauna, Irene Molero andrea eta Natalia Rodríguez andrea Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Zalóa Pérez andrea, Arantza Chacón andrea, Igone Revilla andrea, Gorka Urrutia jauna eta Marta Macho andrea garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin eta botorik gabe.

Presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira, hitzarekin baina botorik gabe:

Leire Gutierrez andrea, eLankidetzako koordinazio teknikoko zerbitzuko, gai-zerrendako 2. eta 3. puntuetarako.

Ana Telleria andrea, eLankidetzaren koordinazio teknikoko zerbitzuko, Kontseiluko idazkaritzari laguntzeko.

Ezin etorria adierazi dute:

Hernando Lacalle jauna, ogasunaren arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Aitor Aldasoro jauna, ingurumenaren arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

María Olabarrieta andrea, gizarte-ongizatearen eta gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Asier Aranbarri jauna, kanpo-ekintzaren arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Nerea Urien andrea, osasunaren arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Miren Elgarresta andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatzuz.

Josu Urrutia jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Elsa Fuente andrea, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz

Lekua: eLankidetzako egoitza.

Eguna eta ordua: 2023ko azaroaren 7a, 11:00etan.

Urteko bigarren ohiko bilerari eman dio hasiera presidenteak 11:05ean, kide berriei ongi-etorria eginez. Alde batetik, gogorarazi du maiatzaren 28an izan zirela izendapen berriak eragin dituzten foru- eta udal-hauteskundeak, eta adierazi du, beste alde batetik, erakunde batzuek ordezkari berriak izendatu dituztela. Aurkezpenen ondoren, bilkuraren gai-zerrenda irakurri du, urriaren 27ko Batzorde Iraunkorrek adostutakoa.

- 1) Aurreko bileraren akta onartzea.
- 2) eLankidetzako Kontseilu Errektorera eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrerako ordezkariak izendatzea.
- 3) eLankidetzaren 2022ko memoria aurkeztea.
- 4) Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariaren *Euskal lankidetzaren zenbakitan 2022* txostena aurkeztea.
- 5) Foro-erakundearen eta eLankidetzaren 2024ko aurrekontuak aurkeztea.
- 6) Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren dekretu-proiektua lantzeko lantaldeari buruzko informazioa.
- 7) Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen egoera.
- 8) Galde-eskeak

Gai-zerrendari dagokionez eragozpenik ez dagoenez, lehen puntuari ekin zaio:

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

2023ko maiatzaren 9ko aktari dagokionez inolako eragozpenik ez dagoenez, aho batez onartu dute bertaratutakoak.



Akta_GLEK_bilkura_2
3_05_09_EUS.pdf

2. ELANKIDETZAKO KONTSEILU ERREKTORERAKO ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRERAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Kontseiluko idazkari Noemí de la Fuenteri eman dio hitza presidenteak gai-zerrendako puntu honi ekiteko.

Noemik azaldu du, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen arabera, Kontseilu Errektoreak, eLankidetzaren erabakitzeke, administrazioko eta kontroleko organo gorena izaki, hiru kide izan behar dituela Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua ordezkatzuz, kontseilu horrek langileen artean hautatuak. Gogora ekarri du gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatua sustatu behar dela.

Noemik Euskadiko GGKEen koordinakundeari eman dio hitza lehenik eta, ondoren, beste gizarte-eragile batzuei bakoitzak bere proposamena adierazi dezan.

Mónica Gonzalezek, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz, adierazi du Milagros Domínguez Vázquezek eta Olga García Martínezek utzi egin diotela Kontseiluko titular izateari, eta Nerea Uriarte Goitiak eta Jesús González Pazosek ordezkatu dituztela. Era berean, Martin Iriberrri Villabona proposatu du Olga García Martínez ordezteko titular gisa Josu Urrutia Beristainekin batera Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua ordezkatzeko eLankidetzaren Kontseilu Errektorean, eta Iñigo Eguren Valera eta Nerea Uriarte Goitia ordezeko gisa.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide ez diren beste gizarte-eragileek Elsa Fuente Do-Rosario proposatu dute titular gisa (Alberto Cereijo Fernández ordeztuz) eta Zalao Pérez Hernandorena ordezeko gisa.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

Bere azalpenarekin jarraituz, Noemik adierazi du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5.4 artikulua adierazten duela batzorde iraunkor bat egon behar dela Kontseiluan eta honako kide hauek izango dituela:

- a) Garapenerako lankidetzaren eskumena duen sailburua, edo haren ordezkari sailburuordea, izango da batzordeko burua.
- b) eLankidetzaren politika betearazten duen burua.
- c) Kontseiluan, Eusko Jaurlaritza ez diren Euskadiko beste herri-administrazioak ordezkatzeko dituzten kideen artean hautatutako pertsona bat.
- d) Euskal GGKEen bederatzi ordezkarien artean hautatutako bi pertsona, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak proposatuta.
- e) Garapenerako lankidetzaren euskal gizarte-eragileen artean hautatutako pertsona bat.

Adierazi du nahitaez berritu behar dela Kontseiluaren osaera, kargu-uzteak izan direnez, eta hitza eman die Eusko Jaurlaritza ez diren beste administrazio publikoei, Euskadiko GGKEen Koordinakundeari eta Koordinakundeak ordezkatzeko ez dituen gizarte-eragileei beren proposamenak jakinarazi ditzaten.

Ignacio Rodríguezek proposatu du berak titular gisa jarraitzea eta Ana Priede Merchánnek ordezkari gisa.

Mónica Gonzálezek, GGKEen Koordinakundearen aldetik, Iñaki Orube Mendieta eta Mónica González Llamazares (Milagros Domínguez Vázquez ordeztuz) proposatu ditu titular gisa, eta Eneko Gerrikabeitia eta Arantza Acha ordezeko gisa.

Beste gizarte-eragile batzuen aldetik egungo ordezkariak mantentzen dira, Gorka Urrutia Asua titular gisa eta Igone Revilla Uzquiza ordezeko gisa.

Bozketa egin da, eta aho batez erabaki dira Batzorde Iraunkorrerako izendapenak.

3. ELANKIDETZAREN 2022ko MEMORIA AURKEZTEA

Presidenteak adierazi du urrian onartu zuela Kontseilu Errektoreak eLankidetzaren 2022ko jardueren urteko memoria, zeina deialdiarekin batera igorri baitzen euskaraz eta gaztelaniaz. Eta eLankidetzako zuzendari Paul Ortigari eman dio hitza memoriaren aurkezpen labur bat egin dezan.



MEMORIA_2022_eLankidetzaren_eus.pdf

Galderarik edo komentariarik izan ez denez, gai-zerrendako hurrengo puntuari ekingo zaio.

4. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ATARIAREN 2022ko URTEKO TXOSTENA AURKEZTEA.

Presidenteak gogorarazi du Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek, hiru hiriburuetako udalek eta Euskal Fondoak 2018. urteko azaroaren 30ean aurkeztu zutela publikoki [Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria](#).

Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko idazkari Noemí de la Fuenteri eman dio hitza Ataria eta 2022ko datuei buruzko txostena aurkeztu ditzan.



Euskal_Lankidetzaren_2022_eus.pdf

Presidenteak eskerrak eman dizkio Noemí de la Fuenteri aurkezpenagatik, eta galderak, komentarioak eta ekarpenak egiteko tarte utzi du.

Jesús Ochoak eskerrak eman dizkie erakunde guztiei gardentasunaren arloan eman diren aurrerapausoengatik, baina adierazi du faltan hartzen duela Atarian ez dela adierazten erakunde bakoitzaren portzentajea aurrekontu kontsolidatuarekiko.

Gorka Urrutiak galdetu du ea pentsatu ote den informazioa 2014. urtearen aurreko beste proiektu batzuetara zabaltzea. Noemí galdetu du ea ba ote dagoen interes konkreturik aurreko datuak eskueran izateko, eta argitu du atarirako datuak biltzea esfortzu handia dela eta 2014. urtearen aurreko ekimenak berreskuratzea oso konplikatu izan daitekeela espedienteen tramitazioa paperean egiten zelako eta ez daudelako digitalizatuak.

Paul Ortigak adierazi duenez, erronka orain beste udal batzuk ere prozesuan sartzea da.

Beste komentariarik izan ez denez, gai-zerrendako hurrengo puntuari ekin zaio.

5. FORO-ERAKUNDEEN ETA ELANKIDETZAREN 2024ko AURREKONTUAK AURKEZTEA

Presidenteak adierazi du urriaren 27ko Batzorde Iraunkorrean GGKEen Koordinakundeak foru-erakundeen eta eLankidetzaren aurrekontuak aurkezteko puntu hau gai-zerrendan sartzea eskatu zuela lau erakundeen aurrekontu-proiektuak

sakonago ezagutzeko, behin hori jakinda eragin-ekintzak burutzeko Eusko Jaurlaritzako talde politikoekin eta hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusiekin.

Hitza eman dio, lehenik, Arabako Foru Aldundiko ordezkari Joana del Hoyori. Adierazi duenez, ezin ditu aurkeztu erakundeak ez dituelako oraindik onartu.

Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari Natxo Rodríguezi eman dio hitza presidenteak, eta hark aurrekontua aurkeztu du. Jakinarazi du hurrengo egunean aurkeztuko luketela Batzar Nagusietan. Adierazi du Lankidetzarako eta Aniztasunerako Zuzendaritzak izena aldatu duela eta legegintzaldi honetan Gizarte Kohesiorako Zuzendaritza Nagusia izango dela, eta lan-esparru berriak hartzen dituela barnean. Aurrekontuaren banakapena azaldu du ondoren.



DFB_presupuesto_2024.pdf

Natxoren aurkezpenaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari Ana Priederi eman dio hitza presidenteak, eta jakinarazi du aurrekontuak lantzen ari direla oraindik eta horregatik ezin dituztela aurkeztu.

Azkenik, eLankidetzako zuzendari Paul Ortegari eman dio hitza. Nabarmendu du % 10eko gehikuntza izan dela Legebiltzarrean onartutako 2023ko aurrekontuarekiko, 5 milioi gehiago, eta argitu du 4 milioi gehiago direla urtean erabilitako aurrekontuarekiko, milioi bateko aurrekontu-doikuntza izan baitzen apirilean. Partiden xehetasuna aurkeztu du eta adierazi du proiektua Legebiltzarrean dagoela jada, eta Nerea Melgosa sailburuak hurrengo egunean egingo duela agerraldia proiektua aurkezteko.



eLankidetzaren presupon 2024.pdf

Presidenteak eskerrak eman ditu aurkezpenengatik eta galdera, komentario eta ekarpenetarako tarte bat zabaldu du.

Jesús Ochoak hartu du hitza eta kontsolidatuarekiko portzentajearen euskal erakundeetako aurrekontuek duten egoera orokorraren laburpen bat egin du. Komentatu duenez, zazpi erakundeei begiratuta, haietako bik handitu egin dituzte portzentajeak kontsolidatuarekiko, bik eutsi egiten diete eta hiruk gutxitu egin dituzte. Eusko Jaurlaritzaren datuek susperraldia izan dute, baina halere 5 ehunen gutxitu dira legegintzaldian. Bere azalpenarekin jarraituz, azaldu du udalak direla posizio onenean daudenak portzentajeari dagokionez.

Aurkezpenak eskertu ditu Iñaki Orubek eta komentatu du Koordinakundeari gustatuko litzaiokeela aurreko Kontseilu batean aurkeztu izana gobernuetan eragin ahal izateko aurrekontuak egiteko prozesuan.

Jesús Gonzálezek lege-proiektuan ezarritako konpromisoak gogorarazi ditu eta, horrekin batera, aurkeztutako aurrekontuak helburu horietatik urrun daudela. Eta azken urteetan gertatu den erosahalmenaren galera aipatu du. Paul Ortegak adierazi du alderdi hori kontuan izan dela, eta partida izendun batzuen zenbatekoa aztertu eta eguneratu dela.

Presidenteak eskerrak eman ditu ekarpenengatik eta gai-zerrendako hurrengo puntuari ekin dio.

6. KONTSEILUAREN DEKRETUA AZTERTZEKO LANTALDE BAT SORTZEARI BURUZKO ERABAKIA

Kontseiluko idazkariari eman dio hitza presidenteak dekretua aztertzeke lantalde bat sortzeari buruzko puntua garatzeko.

Neomík gogorarazi du maiatzaren 9an lantalde bat sortzea erabaki zela Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretua garatzeko, behin Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko proiektua onartzen denean (lege-proiektu horren 11. artikuluan eta xedapenen arteko lehenengoan aurreikusita dagoenez).

Zentzu horretan, aipatu du maiatzeko bilkuran proposatu zuela taldea honako kide hauek osatu zezatela: eLankidetzako pertsona batek, Eusko Jaurlaritzako beste pertsona batek, foru-erakundeak ordezkatzen dituen pertsona batek, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzen duen pertsona batek, unibertsitateak ordezkatzen dituen pertsona batek eta Koordinakundea osatzen ez duten gainerako gizarte-erakundeak ordezkatzen dituen pertsona batek. Eta maiatzaren 26ra arte ireki zen kandidaturak aurkezteko epea. Honako proposamen hauek jaso ziren epe horretan: Zehar Errefuxiatuekin elkarteko Alberto Cereijorena, zeina ez dagoen jada Kontseiluan, Euskal Fondoko zuzendari Juanma Balerdirena eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Martín Iriberrirena.

Kideak animatu ditu talde horretan sartu daitezen eta horretarako aukera izateko beste epe bat ezartzea proposatu du, azaroaren 24ra arte.

Gorka Urrutiak galdetu du zergatik proposatu zen pertsona bat egotea unibertsitateak ordezkatzeko. Noemík erantzun du proposamena Koordinakundearena izan zela, baina ulertzen duela helburua unibertsitateari pisu espezifikoa ematea dela, are gehiago kontuan izanda lege-proiektuak EHUri eta euskal unibertsitate-sistemari ematen dien funtsezko rola, batez ere ezagutzaren kudeaketari dagokionez.

Presidenteak eskerrak eman ditu eta gai-zerrendako hurrengo puntuari ekin dio.

7. LANKIDETZARI ETA ELKARTASUNARI BURUZKO EUSKAL LEGEAREN EGOERA.

Paul Ortegarari eman dio hitza presidenteak, eta Kontseiluaren azken bilkura maiatzean egin zenetik Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen proiektuaren goerari buruzko informazioa eman du.

Aurrekontuaren lanketan Kontseiluan ordezkatutako instituzio eta erakundeen ahalegina eta dedikazioa eskertu du eta Kontseiluaren azken bilkuratik izandako data nagusiak nabarmendu ditu:

- 2023ko ekainaren 30ean nahitaezko txostena eman zuen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak. Aurreproiektu-zirriborroa aldatu zen, egindako gomendioak kontuan izanda.
- Ekainaren 17an Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helaraztea onartu zuen.

- 2023ko uztailaren 26an Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen proiektua onartu zuen Gobernu Kontseiluak.
- 2023ko uztailaren 27an Eusko Legebiltzarrak proiektua jaso zuen.
- Urriaren 2tik 30era bitarte agerraldiak izan ziren Legebiltzarrean (23 agerraldi guztira).
- Gaur egun irekita dago zuzenketen aldia.

Galderarik ez dagoenez, gai-zerrendako azken puntuari ekin zaio.

8. GALDE-ESKEAK

Berriki onartutako programen tresnaren dekretu berriari dagokionez, Nerea Uriartek aipatu du harrigarria egiten zaiola laster indargabetuko den egungo legea aipatzea. Paul Ortégak azaldu du lege-proiektua onartu arte egin daitekeen gauza bakarra indarrean dagoen legearen erreferentzia egitea dela, elementu batzuk egokitu egin direla, eta, dena den, lege-proiektua onartzen denean arau-tresna guztiak aztertu egin beharko direla berriz ere.

Proiektu-tresnaren ebaluazioaren egungo egoerari buruz galdetu du Iñigo Egurennek. Noemí de la Fuentek azaldu du lizitazioa argitaratu zela ebaluazioa uda baino lehen egiteko Kontseiluan aurkeztutako baldintzetan, aholkularitza-enpresa bakar bat aurkeztu zela eta haren proposamena aztertu ondoren ondorioztatu zela ez zuela elementu nahikorik biltzen proposamenaren beraren bideragarritasuna balioesteko. Azaldu du, gainera, proposamenaren konplexutasuna dela-eta garrantzitsua litzatekeela lizitazio-prozesuan kandidatuekin hitz egin ahal izatea, eta, hori horrela, juridikoki aztertzen ari gara posible ote den negoziaketa bat egitea.

Iñaki Orubek esku hartu du Politiken Koherentziarako Taldea berraktibatzea proposatuz. Komentatu du indartsu hasi zen talde bat sortu zela, helburutzat urteko txosten bat egitea zuena. Gehitu du ez direla helburu hori betetzen ari eta taldeak denbora asko daramala bildu gabe. Joseanek erantzun du erabat ados dagoela taldea berraktibatzeke proposamenarekin. Kandidaturak Politiken Koherentziarako Taldeari 2023ko azaroaren 24ra arte aurkeztea proposatu du Noemík. Gogorarazi du ez dela beharrezkoa taldean parte hartzen duen pertsona Kontseiluko kide izatea, eta, aitzitik, Kontseiluko kide batek proposatzen badu, taldearen xederako ekarpen hobea egin dezakeela uste den beste pertsona batek parte hartu ahalko luke.

Iñaki Orubek eLankidetzari zoriondu du, halaber, memoria egin duelako, produktu oso argia eta gardena baita.

Mónica Gonzálezek galdetu du ea berritasunik ba ote dagoen hirugarren gizarte-sektoreko erakundeen eroldarekiko. Paulek jakinarazi du xedapen gehigarri bat barne hartu dela aurrekontuen lege-proiektuan, eta xedapen horrek dekretua aldatzen duela delegazioak barnean hartzeko.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, presidenteak zera azaldu du, hurrengo bilkura abenduaren 11rako aurreikusia bazegoen ere, ez dela posible izango egun horretan egitea eta al bait lasterren berretsiko dela data berria, eta pertsona guztien parte-hartzea eta lana eskertuz, bilkura amaitutzat eman du 12:30ean.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

JOSE ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**